

DBH_2_NATUR_LANTEGIA_Programazio_Laburpena

Irakaslea | Asier Bermejo eta Ana Ugarte | Maila | DBH2 | Ikasturtea | 2020-21

IKASGAIAREN EZAUGARRIAK MAILA HONETAN

Hautazko irakaskai honetan gure gertuko ingurunea aztertuko dugu. Astean 2 saio izanen dira. Aurten bi talde daude.

Covid19 dela eta bizi dugun egoera aldakor honetan, Hezkuntza Departamentuak lan egiteko lau egoera ezberdin antzeman ditu. Lauak [Kontingentzia Plana](#) izena daraman dokumentuan azaltzen dira.

Lehenengo bi egoeretan, aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.

Hirugarren egoeran, erdiz aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.

Laugarren egoera, aurrez aurreko irakaskuntza ez da egongo, eta etxetik lan egin beharko da.

Lehenengo bi egoerak gure ikasgaiari dagokionez, ez du desberdintasunik eta eskutan duzun testu honen arabera lan egingo dugu.

Hirugarren zein laugarren egoeretan sartzen bagara, abian jarriko da ikastetxeko [Arreta ez-Presentzialaren Plana](#).

OINARRIZKO GAITASUNAK

UNITATEAK

	1	2	3	4	5	6
1) Hizkuntza komunikazioa.	X	X	X	X	X	X
2) Matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiako oinarrizko gaitasunak.	X	X	X	X	X	X
3) Gaitasun digitala.	X	X	X	X	X	X
4) Ikasten ikastea	X	X	X	X	X	X
5) Gaitasun sozial eta zibikoak.	X	X	X	X	X	X
6) Ekimena eta ekintzailtza.	X	X	X	X	X	X
7) Kontzientzia eta adierazpen kulturalak.	X	X	X	X	X	X

ETAPAKO HELBURU OROKORRAK

DBH: <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2015/127/0>

EDUKIAK

[DBH 2 EDUKIAK, EBALUAZIO IRIZPIDEAK, ESTANDAR EBALUAGARRIAK](#)

- 1.- Laborategia ezagutzen
- 2.- Landareak
- 3.- Geologia
- 4.- Mikroorganismoak
- 5.- Animaliak
- 6.- Klima eta kutsadura

EBALUAZIO IRIZPIDEAK eta ESTANDAR EBALUAGARRIAK

[DBH 2 EDUKIAK, EBALUAZIO IRIZPIDEAK, ESTANDAR EBALUAGARRIAK](#)

UNITATEAK ETA DENBORALIZAZIOA

1. Ebaluazioa		2. Ebaluazioa		3. Ebaluazioa	
Ordua k	Unitateak	Ordua k	Unitateak	Ordua k	Unitateak
6	Laborategia ezagutzen	9	Geologia	15	Animaliak

12	Landareak	6	Mikroorganismoak	3	Klima eta kutsadura
Unitateen denboralizazioa eta ordena eguraldiaren eta ikasleen interesen arabera alda daiteke.					
METODOLOGIA ETA BALIABIDEAK					
Irakasgaia batez ere praktikoa izanen da. <ul style="list-style-type: none"> • Laborategiko lana oso garrantzitsua izanen da. • Baliabide informatikoak maiz erabiliko dira, lanak prestatzeko eta aurkezpenak egiteko. • Auzoan eta Iruñerrian hainbat irteera egingen ditugu. • Talde lana oso garrantzitsua izango da. Ikaskuntza kooperatiboaren jarduerak egiten ditugu.					
EBALUAZIOA ETA ERREKUPERAZIOA					
KALIFIKAZIO SISTEMA eta TRESNAK					
KALIFIKAZIO TRESNAK					
<p>Laborategia: laborategian egindako praktiken azalpenak, ondorioak, deskribapenak, etab.</p> <p>Talde lana: taldeak osatzen direnean, nola moldatzen diren eta bakoitzak egiten duen lana, eta lanaren kalitatea ebaluatuko dira.</p> <p>Jarrera: irakasgaiarekiko, ikaskideekiko, irakaslearekiko taldean duen jarrera, materiala ekarri eta zaindu eta puntualtasuna kontuan izango dira.</p> <p>Ebaluazio nota</p> <p>Klaseko lana eta jarduerak: % 50a</p> <p>Lan bereziak: % 25a</p> <p>Jarrera: % 25a</p> <p>Euskararen erabilera eta ortografia baloratuko dira jarrera atalean eta lan berezietan bereziki.</p> <p>OHARRA: KALIFIKAZIO HAUEK KONTUAN HARTZEKO EZINBESTEKOAK DA LAN GUZTIAK EGINAK EGOTEA</p> <p>Azken ebaluazioaren nota:</p> <p>Ikasturtean lortutako hiru ebaluazioen arteko batez bestekoa egingo da dena gainditu denean edo ebaluazio bakar bat suspenditua dagonenean (nota gutxienez 4 denean). Irakasgaia gainditzeko 5,0 eskatuko da.</p>					
ZUZENKETA IRIZPIDEAK ETA GUTXIENEOAK					
Jarduerak egin aurretik balioa zehaztuko da eta ikasleei jakinaraziko zaie.					
<p>Ebaluazioko nota jartzeko, borobiltze matematiko arrunta erabiliko da:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Lehen hamartarra 1, 2, 3 edo 4 bada: unitatea bere horretan mantentzen da. • Lehen hamartarra 5, 6, 7, 8 edo 9 bada: unitateari 1 gehitzen zaio. Arau hau ez da aplikatuko 4,5-5 tartean, hau da, gainditzeko baldintza 5era iristea da. <p>Ikasturte bukaerako nota kalkulatzeko, ebaluazio bakoitzeko borobildu gabeko notarekin kalkulatu da, eta ondoren aurreko borobiltze irizpidea erabiliko da.</p>					
ERREKUPERAZIO SISTEMA					
Ebaluazio bakoitzaren ondoren, gainditu ez duten ikasleei, ebaluazio hori berreskuratzeko aukera emango zaie, lan osagarrien bidez					
Ohiko ebaluazioa					
Ekaineko Ohiko ebaluazioa baino lehen, ikasleek aukera izanen dute, momentu horretan gainditu gabe dituzten ebaluazioak berreskuratzeko lan osagarrien bidez.					
Ez ohiko ebaluazioa:					
Gainditu gabeko ebaluazioen berrekurapena egingen da lan osagarrien bidez					
KANPOKO EBALUAZIOA					
Irakasgai honetan ez dago kanpoko ebaluaziorik					

OHARRA: Hau guztia hasierako plangintza da, malgutasunez jarraituko dena. Ikasturtean zehar ikusten bada komeni dela zerbait aldatzea, zilegi litzateke.

Iruñea 2020ko iraila: